

Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako sektoreko salmentek %2,6ko igoera izan dute 2008ko hirugarren hiruhilekoan

Merkataritza ez-espezializatuaren salmentek urte arteko %3,1eko hazkundera izan dute, eta espezializatuaren salmentek, aldiz, %2,3koa.

Eustaten arabera, eta lan-egutegi homogeneoari jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako merkataritzaren sektorean, salmentak %2,6 igo dira, balio nominaletan, 2008ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko ekitaldiko hiruhileko berarekin alderatuta. Urte arteko hazkunde nominal hori, prezioen igoeraren eragina kenduta, %0,2koa da, balio errealetan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, txikizkako barne-merkataritzako salmentek, desestazionalizatu ondoren, %1,4ko igoera izan dute, balio nominaletan, eta %0,9koa balio finkoetan.

Urte arteko zuzenduta hazkunde-tasa errealak. Euskal AE

Urtea	Hiruhilekoa	Txikizkakoa	Espezializatua	Ez-espezializatua (Azal. Ertain eta handiak)
2006	III	-0,6	-0,7	0,0
	IV	3,6	5,2	-0,1
2007	I	3,6	4,3	2,1
	II	0,2	0,6	-0,9
	III	1,7	2,3	0,5
	IV	0,4	0,3	0,2
2008	I	-1,3	-0,4	-2,4
	II	-2,2	-2,5	-2,2
	III	0,2	0,9	-1,8

Iturria: EUSTAT

Txikizkako merkataritza espezializatuaren salmentak %2,3 igo dira 2008ko hirugarren hiruhilekoan, 2007ko aldi beraren aldean. Hazkunde nominala %0,9ko hazkunde-tasa bihurtu da, balio errealetan.

Txikizkako merkataritza ez-espezializatuak %3,1eko igoera jasan du urte honetako hirugarren hiruhilekoan, balio nominaletan. Urte arteko tasa errealaren aldakuntza -%1,8koa izan da 2007ko hiruhileko beraren aldean.

Txikizkako merkataritza espezializatuaren eremuan, *pertsonaren ekipamendu* sektoreak izan du urte arteko hazkunde-tasa handiena, izan ere, %7,4ko hazkunde nominala jasan du, %7,5ekoa, balio errealetan. *Elikagaiak* sektoreak ere %2,6ko gehikuntza izan du balio nominaletan, -%2,1eko tasa negatiboa, balio errealetan. *Bestelako kontsumo-ondasunak* alorrean, produktuen salmentak %1,8 igo dira euro arruntetan, %0,4ko hazkundea lortuz, balio errealetan. Bestalde, *Etxeko ekipamendua* alorrean, produktuek %3,9ko beherakada jasan dute, %6,3ko jaitsiera, balio errealetan.

Txikizkako merkataritza ez-espezializatuan, *elikagaiak* sektoreak %4,2ko hazkundea izan du, balio nominaletan, baina %1,3ko jaitsiera izan du, balio errealetan. Txikizkako merkataritza ez-espezializatuan, gainontzeko produktuetan %2,9ko jaitsiera eman da balio nominaletan, %5,5ekoa balio errealetan.

Pasa den urteko hiruhileko beraren aldean, Bizkaiko txikizkako barne-merkataritzak %3,4ko hazkundea izan du, balio nominaletan, 2008ko hirugarren hiruhilekoan. Balio finkoetan eman den hazkundea %1,1ekoa izan da. Gipuzkoako salmentek %2,2 egin dute gora balio nominaletan, eta %0,3 jaitsi egin dira, balio errealetan. Arabako salmentek %0,4 egin dute behera balio nominaletan, eta %2,0 jaitsi egin dira, balio errealetan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, datuak desestazionalizatu ondoren, txikizkako barne-merkataritzako salmentak %3,3 igo dira Araban, %1,5 Bizkaian eta %0,3 Gipuzkoan.

Txikizkako merkataritzako sektorean enplegu-tasa %0,4 igo da, 2008ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoaren aldean. Bizkaian %0,6 hazi egin da, Gipuzkoan %0,2 eta Araban ez da aldaketarik izan.

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe +34-945-01 75 01 Helb.elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es